



GFI Nortek bekadunak kontratatzen ditu eta langile gaituak "aulkian" uzten ditu.

Ez zaio inori gustatzen proiektuak aurrera atera izana, eta familia eta gizarte arloan sakrifizioak egin izana kalean bukatzeko. Hori da gure etorkizuna GFI Nortek: bekadun batek egingo du gure lana.

Hurrengoan Giza Baliabideen Zuzendaritza burutzen ari den politika azalduko dizuegu. Helburua, langileen egoera ahalik eta gehien txirotzea.

- 2013.ko urtarrila – apirila. GFI Nortek langile eskarmentudunak botatzen ditu urteko 30 egun kalte-ordaina eskainiz eta beharrezkoa denean berriro deituko dietela esanez.
- 2013. Apirila. Enpresak esan zigunez, 22 pertsona zegoen enplegutasun-zentruan.
- 2013. Apirila – maiatza. Zamudioko langileei 21 pertsona gehiago behar direla esaten zaie.

Logikak eta etikak esaten digunez, langileak behar dituzunean:

1. Enplegutasun-zentroan dagoen jendea prestatu behar duzu aterako diren lanpostuak betetzeko.
2. Botatako jendea deitu behar duzu lanpostu horietan sartzeko.
3. Ez dira aparteko orduak egiten, proiektu barik edota langabezia dauden lankideekin elkartasuna adierazteko.

Baina GFI-Nortek egin duena kontrakoa da:

1. Lantiken 300 aparteko ordu baino gehiago sartu dira.
2. Bekadunak kontratatzen dira, langile eskarmentudunek hezteko. Eta gero azken hauek lan barik uzten dute, bekadunek lana egiten duten bitartean.

ELA sindikatu-ataletik egoera hauek guztiak aztertzen ari gara, eta emandako informazioa, eta emango diguzuen informazioa eskertzen dizuegu. Hasieran, egoera onartezin hau salatzen dagoeneko testu bat bidali diogu Zuzendaritzari.

Era berean, **lankideekiko elkartasuna eskatu nahi dizuegu**. Gauza bera beharko duzu **zure lan-kostua erakargarria ez denean enpresaren aldetik**.

Ba al zenekien...

- Heziketa bultzatzeko plana luzatu genion enpresari 2013ko urtarrilan eta ordutik... lehenengo lepotik burua.
- Plan hori bultzatzekotan, kurtso guztien kontrato txostena egiten ari gara.
- Lan-Ikuskaritzan salatu dugu kurtsoak ez argitaratzea tauletan, eta guztiontzako EZ dagoela hezteko benetako aukera.

200 egun falta dira hitzarmen barik geratzeko

Bizkaiko Bulego eta Langeletarako hitzarmenaren negoziazioan dauden sindikatuen aldetik pasa den 22an egindako manifestazioa, patronalaren gelditasuna salatzen, eta baita 23an TIC enpresetako ordezkariak antolatutakoa lan-baldintzen defentsan oso sentipen onak utzi dizkigute.

22ko manifestaziora **100 ordezkari baino gehiago** etorri ziren, patronalaren aurrean hain egoera bidegabekoan utzi dizkiguten erreformaren kontra denok bat egin nahi dugula esateko, lankideak garelako eta gure batasunean eskubideak eta lan-baldintzak defendatzeko giltza dagoela.



23ko manifestazioari dagokionez, informatikako arloan, orain arte mugiezina zirudiena, gauzak aldatzen hasi dira eta langileak esnatzen ari dira. Apurka-apurka eskubideak defendatzeko mobilizazioa beharrezkoa dela konturatzen hasi dira, eta horren froga da **1000 pertsona baino gehiagok** biltzea manifestazioan.

Ibilbide luze baten lehenengo urratsak baino ez dira **hitzarmen duin** bat lortzeko borrokan, baina argi eta garbi erakusten digu **erreformaren kontrako bide bakarra batasuna dela**.

